

Emakume erromatarren *amicitia* sareak eta haien erabilera politikoa

Leire Lizarategui Elu
Ikasketa Klasikoen Saila, Letren Fakultatea (EHU)

Tradizioak eta legeak emakume erromatarrei magistraturak eskuratzea eta gobernuko erabakietan bozkatzea debekatzen zien. Hala ere, debeku horrek, politikatik guztiz baztertzea lortu ordez, antolakuntza modu alternatiboak bultzatu zituen. Erromatar emakumeen kasuan, mendeetan zehar hainbat protesta publiko izan baziren ere, badirudi erabaki horietan eragiteko ohiko modua etxe pribatuen inguruan antolatzen ziren *amicitia* sare femeninoen bidez izango zela. Artikulu honetan sare horien funtzionamendua azaltzen dugu, haien eta hiritarren patronatu-harremanen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak nabarmenduz. Horrez gain, emakumeen parte-hartze politikoaren kontra idatzi zuten zenbait autoreren kritikak aztertuz, oro har, gizarte erromatarrek sare hauek praktika onargarri (eta baita komenigarri) moduan ikusten zituela argudiatzen dugu.

GAKO-HITZAK: *amicitia* · *matronae* · Parte-hartze politikoa · Antzinako Erroma.

The *amicitia* networks of roman women and their political relevance

Law and tradition forbade Roman women to serve as magistrates or to vote in any political assembly. Nevertheless, that prohibition did not bar them completely from political decision-making and, instead, pushed them to find alternative forms to organize themselves. Throughout the centuries, we may find, indeed, many public protests carried out by Roman women. However, their more usual way to influence politics seems to have been through the use of female *amicitia* networks, which were organized around private homes. In this article we will explore the functioning of those networks, pointing out the similarities and differences with the *patronage* system. We will also analyse the criticism of some ancient authors against the political participation of women, and we will argue that female *amicitia* networks were largely seen as an acceptable (and even convenient) form for women to intervene.

KEY WORDS: *amicitia* · *matronae* · Political participation · Ancient Rome.

1. Erromatarren *amicitia* sareak

*Domum servavit, lanam fecit*¹. Klaudia izeneko emakume baten hilarrian aurkitutako esaldi honek lau hitzetan laburtzen du Erromatar Errepublikak matronei inposatzen zien ideal domestikoa. Tradizioak eta legeak emakume erromatarrei haien hiriko bizitza publikoan parte hartzea debekatzen zien (Gardner, 1986; Chatelard, 2016, 23-46. or.; Pavón Torrejón, 2018, 33-62. or.). Nolanahi ere, etxearekiko lotura horrek ez du esan nahi emakume erromatarrek haien hiriko erabaki politikoetatik guztiz baztertuta bizi izan zirenik. Erromatar gizarteak ezartzen zizkien mugek haien parte hartzeko moduan eragin zuten, baina ez zuten guztiz eragotzi. Hain zuzen ere, *amicitia* edo patronatu-harremanak bereziki baliagarriak izan ziren erabaki politikoetan eragiteko etxeko espazio pribatutik. Izan ere, erromatar etxeak, bereziki *ordo* senatorialeko familien *domus*ak, espazio politikoak ziren², bai gizonentzat eta bai emakumeentzat³. Gizarte hartan harreman pribatuen eta publikoen arteko bereizketa ez zen egun bezain argia, eta Martin Jehne-k (2015, 297-320. or.) desberdintasun erabakigarri bat aipatzen du: demokrazia moderno gehienek (oraindik gertatzen bada ere) ez dute begi onez ikusten komunitate osoari eragiten dioten erabakiak pertsona gutxi batzuen arteko elkarriketa pribatuetan hartzea; aldiz, praktika hori guztiz ohikoa eta onargarria zen antzinako Erroman, eta ohikoa zen hiriko aliantza politiko gehienak erlazio pribatuen inguruan antolatzea patronatu-sistemaren bidez.

Dionisio Halikarnasokoaren (2.9-11.2) esanetan, praktika hori Romulok berak abiarazi zuen hirian elkar-laguntza sustatu eta barne-gatazkak ekiditeko. Helburu utopiko horren arabera, patrizioak erlijioaz, justiziaz eta gobernuaz arduratuko ziren, eta plebeioek bestelako lanak egingo zituzten, betiere patrizio baten babes bilatuz gai publikoetarako. Harremana elkarrekikotasunean oinarritzen zen: laguntza eske zihoazen *cliens* edo *amicus*⁴ direlakoek legeak ongi ezagutzen zituzten, eta beste agintariak konbentzitzeko ahalmena zeukaten, estatu-gizon baten babes politikoa lortzen zuten edozein arazo juridiko edo politiko arrakastaz kudeatzeko; eta *patroniek* klientelismo-sare zabalei esker haien boterea legitimatzen zuten, hiritar asko haien alde zeudela erakutsiz, eta haien bizimodu aristokratikoa finantzatzeko baliabideak lortzen zituzten (Saller, 1982). Garrantzitsua da aipatzea harreman horiek, batez ere, *patronusaren* etxe inguruan antolatzen zirela; izan ere, klienteak ia egunero

1. *CIL* VI, 15346.

2. Vitruvioren (6.5.1) esanetan, boteredun familien etxeak eraikitzean lehentasun garrantzitsua zen espazioa halako harremanak jasotzeko prestatzea, hau haien boterea mantentzeko behar-beharrezko praktika baitzen. Familia xumeagoen etxeek, aldiz, ez zituzten harreragune horiek behar (Clarke, 1991; Carandini, 2014).

3. Vitruviok (6.7.2-4) dio etxe grekoetan kanpoko bisitarientzat itxita mantenduko ziren emakumeen gela bereizi batzuk (*gynaecoonitis*) egotea ohikoa zela, baina ez du halakorik aipatzen *domus* erromatarretan.

4. Arlo honetan eztabaida terminologiko bat dago *cliens* eta *amicus* terminoen erabileraren inguruan. Badian-ek (1958, 11-13. or.) *amicus* hitza soilik eufemismo moduan erabiltzen zela adierazi zuen. Haren ustetan, *cliens* hitzak hierarkia argi bat markatzen zuenez, *patroniek* xamurragoa zen beste hitz hau erabiliko zuten haien atarira atzerriko erregeak eta bestelako goi-mailako pertsonaiak agertzen zirenean laguntza eske. Teoria honen inguruko errebisioek, aldiz, adierazi dute erromatarrek hitz bat zein bestea mota guztietako patronatu-harremanetan erabiltzen zutela (Saller, 1989, 4962. or.; Williams, 2013, 46. or.; Jehne, 2015, 299. or.).

bertaratzen ziren *salutatio*a egiteko, hots, haien errespetua erakusteko. Momentu hartan haien babesleari bizitza publikoarekin lotutako betebeharren bat burutzeko laguntza eskatu ahal zioten (tribunalen aurrean defendatzea, adibidez), eta, era berean, hark zerbitzuren bat behar balu zereginen bat inposatuko zien (forora laguntzea hurbiltzeaz ziren hauteskundeetan *patronus*aren alde egiteko, ezkontzeaz zen alabarentzat ezkonsariko dirua batzen laguntzea, etab.). Zentzu horretan, bai batentzat zein bestearentzat, elkarrekiko errespetua eta eskuzabaltasuna erakustea haien ohorea eta izen ona mantentzeko betebeharrak ziren⁵.

Patronatu-sare horien bidez familia boteretsuenetako matronek gizon zein emakumeekin harremanak ezarri eta haien sare propioak osatu zituzten⁶, hala ere iturri literarioek, bereziki errepublika-garaiko kasuak deskribatzean, argi uzten dute genero berekoen artean ezarritako harremanek mesfidantza gutxiago sorrarazten zutela. Badirudi matronen kasuan beste emakume batzuekiko *amicitia*, oro har, ohikoagoa izango zela, etxetik kanpoko gizonekin kontaktu iraunkorrak ezartzeak haien izen ona kaltetu baitzezakeen. K.a. I. mendean, adibidez, Senpronía (Sall. C. 24-25. or.; Weiden Boyd, 1987, 183-201. or.; Ibáñez Chacón, 2006-2007, 67-89. or.) eta Klodia (Cic. *Cael.* 31-36. or.; McCoy, 2006, 177-185. or.; Skinner, 2011) oso kritikatuak izan ziren gizonekin konexio publikoak izatearren. Harreman horiek maitaleak izateko, prostituzio-ekintzetan parte hartzeko eta errepublikako gobernuaren kontra jardun nahi zuten talde kolpistetan entzunak izateko baliatu zituztela leporatu zieten biei haien etsai politikoek. Bi emakume horien kasuak muturrekoenak dira, eta haien kontrako irainen atzean helburu politiko argiak zeuden. Nolanahi ere, badirudi, oro har, emakumeentzat seguruagoa zela soilik emakumeek osatutako patronatu-sare paraleloetan parte hartzea haien *pudicitia*ren kontrako txutxu-mutxuak ekiditeko⁷.

5. R. Kaster-ek (1997) sakon aztertzen du erromatar gizartean horren garrantzitsua zen *pudor* kontzeptua, eta haren ustez norbanakoaren pertzepzioari estuki lotutako lotsa-sentimendua zen. Ez kanpoko kritikak jasotzeko beldurra, baizik eta norbere balioak mantentzen huts egin izanagatik barne-barnetik sortutako lotsa. Kaster-ek dioenaren arabera, sentimendu hau pertsona bakoitzaren maila sozialaren arabera aldakorra zen eta, beraz, botere gehien zeukatenen artean sakonagoa izan behar zen *pudor* sentipena egin beharrekoetan huts egiten bazuten. Haren hitzetan: «Since the ideology of pudor is overwhelmingly communitarian in its impulse, tending away from eccentric acts of individual will and toward social harmony, and since the signs of this harmonizing emotion are visible in the blush and posture, a large part of social harmony must rely literally on face-to-face relations. [...] To a person with an active sense of pudor, all those who constitute his social world are constantly visible, as he is visible to them. Conversely, to be without a sense of pudor is to treat others as if they were simply not there; the most direct response to such shamelessness, shunning, treats the shameless one as if he were invisible in return. At the same time, the communitarian ideology gets its centripetal force from the energy of the individual conscience: it assumes that much responsibility for social harmony can usefully be located in the individual psyche, especially the tendency for people to be displeased with themselves» (Kaster, 1997, 3-5. or.).

6. Printzipatu-garaian ohikoagoak eta publikoagoak bilakatu ziren gizon eta emakume arteko *amicitia* harremanak, eta sakon aztertuak izan dira, adibidez, Plinio Gaztea eta haren lagunaren arteko gutunak: Sherwin-White, 1969, 76-90. or.; Posadas, 2008, 87-105. or.

7. Kaster-en (1997, 10. or.) ustez *pudicitia* kontzeptuak emakumeen kasuan neurritasun sexuala adierazi nahi zuen bakarrik. J.-F. Thomas-ek (2005, 53-73. or.), aldiz, kontzeptu zabalagoa proposatzen du eta, bere aburuz, *pudor* kontzeptuak egoera konkretu baten aurrean sentitutako lotsari egingo zion erreferentzia, eta *pudicitia* hitzak, aldiz, urteetan zehar *pudor* delakoak inposatutako betebeharrak ongi burutzen pasatako bizimoduari.

Gizonezkoen patronatu-sareekin konparatzen baldin baditugu, emakumeen arteko sare hauen helburuak antzekoak ziren, baina antolakuntza ezberdina zen, *patronus*aren papera egiten zuten emakumeei zuzenean faborea eskatu ordez, askotan, haien senideak konbentzitzeko bitartekaritza eskatzen baitzitzaien. Tito Livio historialariak praktika honen lehen adibidea Romulo erregearen garaian kokatzen du, sabinarren bortxaketaren ostean:

duplicique victoria ovantem Romulum Hersilia coniunx precibus raptarum fatigata
orat ut parentibus earum det veniam et in civitatem accipiat; ita rem coalescere
concordia posse. Facile impetratum⁸ (Liv. 1.11.2).

Tito Livioaren arabera, gertaera hori Antemnae-koen aurkako garaipena lortu ostean gertatu zen. Beraz, tribu horretako emakumeak izan ziren Hersiliarengana joan zirenak laguntza eske, nahiz eta Hersilia sabinarren tribukoa zen⁹. Kondairan, emaku-me haiek tribu ezberdinetakoak ziren ospakizun erlijioso batean erromatarrek bahitu eta haiekin ezkontzera behartu zituzten arte, baina Liviok ez du ñabardura hori kontuan hartzen. Autore horren aburuz, Erromako emakumeek elkarren laguntza bilatuko zuten momentu larrienetan, testuingurua edozein zelarik ere. Hala, haien artean eragin handiena izan zezakeenari laguntza eskatzen erakusten ditu, jatorri ezberdin hori dela-eta haien gurasoen tribuek izan ahal zituzten iraganeko aliantza edo gatazkak kontuan hartu gabe. K.a. III. mendea baino lehen Erroman bizi izan ziren emakumeei buruz ezer gutxi dakigu testu horrek dioena baieztatu edo ezeztatu ahal izateko, baina, argi dago Livioaren garairako emakumeen arteko *amicitia* sareak sakon errotuta zeudela erromatar gizartearen, autoreak ezin baitu imajinatu halako praktikak existitzen ez ziren garai bat. Hala, bahituak atzerritarrek baziren ere, erromatar andreek egin ohi zutena betetzen erakusten ditu. Kasu honetan, erregearen emazte gisa, Hersilia zen haien helburuak lortzeko biderik onena zeukana eta, beraz, bestelako gogoetarik gabe, haren bitartekaritza bilatzen dute bahituek haien senideen bititza salbatzeko.

2. Emakumeen arteko *amicitia* sareen eraldaketa urteetan zehar

Kronologikoki, emakumeen arteko sare hauen aipamen zaharrena K.a. III. mendearen amaierakoa da, eta Plautoren *Cistellaria* komedian kontserbatzen da¹⁰. Antzezlanaren lehen lerroetan prostituta talde batek sare hauen izaera hierarkizatua salatzen du, eta emakume txiroenen babes faltaz damutzen da:

8. «Romulo garaipen bikoitza ospatzen zegoela, Hersiliak, bere emazteak, bahitutako emakumeen erreguak entzuten nekatuta, haien gurasoak barkatu eta hirian onartzeko eskatu zion, modu horretan gatazka amaitu eta konkordia berreskuratzeko. Erraz lortu zuen eskatutakoa» (Liv. 1.11.2). Artikulu honetan erabilitako jatorrizko testuen edizioei buruzko informazioa bibliografia atalean dago jasota. Euskarazko itzulpenak autorearenak dira.

9. Hersiliaren kasuan autore klasikoek haren nortasunaren inguruko bertsio ezberdinak zeudela diote. Liviok (1.11.2) Romuloren emaztea bezala aurkezten du, eta Plutarko (*Rom.* 14.8; 35.2) ez dago ziur Romuloren edo Hostio Hostilioren (hots, gero Tulo Hostilio erregea izango zenaren aitona) emaztea ote zen. Bestalde, Dionisio Halikarnasokoak (2.45.2) bere alabarekin Erroman geratzea erabaki zuen bahituetako baten ama izan zitekeela dio.

10. Baliiteke obra hau K.a. 209 urte inguruan idatzi izana, bertan Bigarren Gerra Punikoan gertatutako hainbat aliantzari erreferentzia egiten baitzaio, eta gainera kartagotarrenen kontrako garaipena hurbil dagoela aipatzen da (Wolfgang de Melo, 2011, 129-130. or.).

deceat pol, mea Selenium, hunc esse ordinem beneuolentis inter sebeneque amicitia utier, ubi istas uideas summo genere gnatas, summatis matronas, ut amicitiam colunt atque ut eam iunctam bene habentinter se. si idem istuc nos faciamus, si [idem] imitemur, ita tamenuix uiuimuscum inuidia summa. suarum opum nos uolunt esse indigentis. nostra copia nil uolunt nos potessesuique omnium rerum nos indigere, ut sibi simus supplices.eas si adeas, abitum quam aditum malis, [...]»¹¹ (Pl. Cis. 24-37).

Testu horrek adierazten du emakume aberats zein txiroek osatutako sare askoren arteko funtzionamendu paraleloa existitzen zela: alde batetik, prostituten arteko sareak zeuden, eta pentsa genezake bestelako lanak burutzen zituzten emakume aske baina txiroak ere antzera antolatuko zirela¹²; horiez gain, emakume txiroen eta matrona aberatsen arteko harremanak ere existitzen ziren; eta, testu horren arabera, guztien artean hoberen antolatuta zeudenak etxe oneko matronen arteko sareak ziren. Azpimarratu behar dugu emakumezkoen sareen hiru maila ezberdin horiei buruz dugun ezagutza nabarmen desberdina dela. Espero zitekeen bezala, iturri literarioek batik bat matronen taldeari buruzko informazioa eskaintzen dute, eta maila baxuagoko emakumeen arteko loturei buruzko aipamenak askoz urriagoak dira. Hala ere, baliteke iturri epigrafiko eta papiroek sare horiei buruz dakiguna zabaltzen laguntzea etorkizunean.

Plautok, gainera, sare horiek nola funtzionatuko zuten eta etxeek harreman horietan izan zuten garrantzi praktikoa eta sinbolikoa ere azaltzen du. Etxeak emakumeen topaguneak ziren aldetik, *patronus*aren papera egiten zuen andrearen estatus-sinbolo garrantzitsua ziren. Hain zuzen ere, Plautoren prostitutetako baten ahotik entzuten dugu faboreak eskatzeko beharrean zeuden emakumeak, edozein maila sozialetakoak izanda ere, familia boteretsuenetako matronen etxera joatera behartuta zeudela. Hori, gizonezkoen *salutatio*an bezala, errespetua erakusteko ohitura bat zen, baina bi pertsonen arteko hierarkizazioa eta distantzia adierazteko ere balio zuenez, noizbehinka, irainak eta gorrotoak ere sorrazten zituen¹³. Hala ere, oro har, etxeko *domin*ak interes handia zeukan eskatzaileei eskuzabaltasuna erakusten eta etxean harrera ona egiten, etxea beteta izateak haren izen ona mantentzen eta hobetzen laguntzen baitzuen¹⁴. Etxeak, hala, politikatik baztertzen zituen espazioak izan ordez, emakume haiei influentzia-sareak osatzea ahalbidetzen zieten guneak ziren.

11. «Selenio maitea, beharrezkoa da, benetan, gure mailakoen artean borondate ona eta elkarrekiko adiskidetasuna erakustea. Ikusten dituzu etxe oneko emakumeak, goi-mailako matronak, adiskidetasuna zaintzen eta haien arteko loturak garatzen. Guk berdin egiten badugu ere, haien eredia imitatzen badugu ere, haien gorrotoa sufritzen dugu. Haien errukiarekiko eskale ikusi nahi gaituzte. Gure kabuz ezer egiteko ahalmenik ez izatea nahi dute, gauza guztietarako behartsu, eta haien erruki eske. Haiengana bazoaz, harantzkoa honanzko bidea baino mingarriagoa da» (Pl. Cis. 24-37).

12. Halako asoziazioei buruzko berriak oraindik ikertzeko bidean dauden arren, Emily Hemelrijk-ek (2015, 202-225. or.) sakon aztertu zituen Printzipatuaren garaian emakume aberatsak babesletzat zituzten *collegia*-k, eta baita bakarrik emakumeek osatutako halako taldeak ere (226-233. or.).

13. Liviok (6. 34.5-8), adibidez, bi ahizparen artean gertatutako halako kasu bat aipatzen du, eta honen ezusteko eraginak patrizio eta plebeioen arteko gatazketan.

14. Lien Foubert-ek (2016, 129-150. or.) jendez betetako etxea *domus frequentata* emakumeentzat estatus-adierazle garrantzitsua izango zela defendatu du. Haren ikerketaren arabera, haien izen ona galdu zuten emakumeen kasuan etxeak, berehala, hustuta geratu ziren eta, etxe inperialeko emakumeen kasuan, *amicitia* sareen galera hori haien heriotzaren aurreko pauso bilakatu zen sarri.

Antzinako iturrietan matronei zuzendutako halako eskaeren hainbat aipamen daude, baina Plautoren komediak eta Zizeronen gutunak iturri bereziki aberatsak dira, ziur aski bai batak eta bai besteak, helburu eta tonu ezberdinekin, egunerokotasuneko harremanak erakusten dituztelako. Zentzu horretan, iturri adierazgarrienetako bat K.a. 62an Zizeronek Publio Sestio lagunari idatzitako gutuna da:

Cum ad me Decius librarius venisset egissetque mecum ut operam darem ne tibi hoc tempore succederetur, quamquam illum hominem frugi et tibi amicum existimabam, tamen, quod memoria tenebam cuius modi ad me litteras antea misisses, non satis credidi homini prudenti tam valde esse mutatam voluntatem tuam. sed postea quam et Cornelia tua Terentiam convenit et ego cum Q. Cornelio locutus sum, adhibui diligentiam, quotienscumque senatus fuit¹⁵ (Cic. Fam. 4.1).

Eskutitz horretan hizlari famatuak bere lagunari kontu politiko bati buruz idazten dio. Sestiok hasiera baten Mazedonian zeukan kargua utzi nahi zuela jakinarazi zion, baina denborarekin iritziz aldatu zuen, eta Zizeroni helburu hori lortzeko laguntza eskatu zion. Gakoa laguntza hori eskatzeko moduan dago. Izan ere, Sestio bera Erromatik kanpo zegoen, eta beraz, hasieran, bere idazkaria bidali zuen bere babesle politikoaren etxera iritziz aldatu zuela esan eta bere izenean laguntza eskatzeko. Baina aldaketa horren nabarmena izanik, Zizeronek ez zion sinetsi Sestioaren morroiari. Momentu horretan politikari famatua konbentzitzeko lana Korneliak, Sestioaren emazteak, hartu zuen, baina honek ez zuen Zizeronekin zuzenean hitz egin. Horren orde, haren etxera joan zen, han Terentziarekin batu zen, eta soilik Zizeronen emaztearen bitartekaritzaren bidez helarazi zion hari senarraren asmo politikoei buruzko mezua.

Errepublikaren amaierako eta Printzipatuaren hasierako iturriek behin eta berriz errepikatzen dute hiru pausotan oinarritutako emakumeen arteko elkarrekinntza hau. Hasteko, laguntza beharrean zegoen emakumeak kontu hori konpontzeko matrona egokiena zein zen identifikatzen zuen (haren aberastasuna, izen ona zein kontaktuak baloratuta), eta bisita bat egiten zion bere etxera. Bertan, etxeko *dominak* harrera egiten zion edo ez (azken aukera hau salbuespen arraroa bazen ere) eta, onartua bazen, elkarriketa bat izatea lortzen zuen; hala ere, elkarriketa hori, eskatzailearen maila sozialaren arabera, erosoagoa edo umiliagarriagoa izan ahal zen (Liv. 39.11.4-13.3). Une horretan, eskatzaileak bere egoera eta behar zuen laguntza azaltzeko aukera izaten zuen, eta etxeko andreak bitartekaritza eske amaitzen zuen erregua. Azkenik, eskatzaileak alde egin ondoren, eta hark proposatutakoa egokia iruditzen baldin bazitzaion, *patronus*aren papera betetzen zuen andreak bere senarra, semea edo beste senideren bat bere *amicaren* interesen alde jarduteko konbentzitzen zuen.

15. «Dezio, zure idazkaria, niregana etorri eta momentuz zure oinordekorik ez izendatzea lortzeko ahaleginak egitea eskatu zidanean ez nion sinetsi, gizon zintzoa eta zure laguna zela uste banuen ere. Izan ere, gogoan nituen zuk bidalitako gutunak eta ezin nion sinetsi gizon horri zure borondatea horrenbeste aldatu zela esan zidanean. Baina gero, zure Kornelia Terentziarengana etortzean, eta nik neuk Q. Korneliorekin hitz egin eta gero, gogo onez eta behar beste aldiz joan nintzen Senatura [zure eskakizuna betetzen saiatzeko]» (Cic. Fam. 4.1).

Hala, Terentzia¹⁶, Zizeronen lehen emaztea, pertsonaia bereziki interesgarria da K.a. I. mendean sare femenino hauen funtzionamendua nolakoa zen ulertzeko. Garaiko emakume aberatsenetakoa¹⁷ izan zen eta erruz erabili zituen sare hauek, bai bere negozioetarako¹⁸ eta baita bere senarraren interes politikoetarako ere. Gainera, K.a. 60ko hamarkadan, bere senarraren karrera politikoa momentu hoberenean zegoela, Terentzia laguntza behar zuten emakume askorentzat bitartekari egokiena bilakatu zen. Horren harira, Plutarkok kasu bereziki dramatiko bat aipatzen du. Marko Antonioren biografian, triunbiroak Zizeronekiko zeukan gorrotoa nola azaltzen zuen aipatzen du, eta hark hizlari famatuari aitaordearen heriotza eta amaren umiliazioa leporatzen zizkiola dio. Izan ere, Juliaren bigarren senarra, Kornelio Lentulo, K.a. 63ko Katilinen konplotaren beste parte-hartzaile batzuekin batera exekutatu zuten, eta, Marko Antonioren arabera, Zizeronek ez zion familiari gorpua berreskuratzen utzi hileta erritu egokiak egiteko Julia Terentzia bisitatzera joan eta beraren oinetara eskeka hasi zen arte:

Ἦν δὲ αὐτῷ γυνὴ Ἰουλία τοῦ Καισάρων οἴκου, ταῖς ἀρίσταις τότε καὶ σωφρονεστάταις ἐνάμιλλος. ὑπὸ ταύτης ὁ υἱὸς Ἀντώνιος ἐτράφη μετὰ τὴν τοῦ πατρὸς τελευτὴν Κορινθίῳ Λέντλωγαμῆϊσιν, ὃν Κικέρων ἀπέκτεινε τῶν Κατιλίνα συνωμοτῶν γενόμενον. αὕτη δοκεῖ τῆς σοφδορᾶς ἔχθρας Ἀντωνίου πρὸς Κικέρωνα πρόφασις καὶ ἀρχὴ γενέσθαι. φησὶ γοῦν Ἀντώνιος οὐδὲ τὸν νεκρὸν αὐτοῖς ἀποδοθῆναι τοῦ Λέντλου πρότερον ἢ τῆς γυναικὸς τοῦ Κικέρωνος τὴν μητέρα δεηθῆναι¹⁹ (Plu. *Ant.* 2.1-3).

Plutarkok ez zuen uste Marko Antoniok kontatzen zuena benetan gertatu zenik, bere ustez Katilinen konplota zela-eta exekutututako guztiek hileta duinak jaso baitzituzten, baina ez du inola ere arrarotzat hartzen Juliak Terentziari eginiko eskakizuna, gerra zibil eta proskripzioen garaian arruntak izan baitziren halako laguntza eskeak. Errepublikagaraian, ohikoa zen senatari-familiako emakume

16. Jatorri plebeioa zeukan familia aberats batean jaio zen K.a. 98an, ahizpa bat zeukan fama handiko Birjina Vestalen artean, eta K.a. 80an Zizeronekin ezkondu zen. Bikoteak bi seme-alaba izan zituen: Tulia, K.a. 78an, eta Zizeron gaztea, K.a. 65ean. Hainbat urtez ezkondata egon eta gero, K.a. 47an dibortziatu ziren, eta bakoitza beste bikote batekin ezkondu zen. Zizeron K.a. 42an erail zuten Marko Antonioren aginduz, baina Terentzia 102 urte bete arte bizi izan zen (Treggiari, 2007, 25-32. or.; Buonopane, 2016, 51-64. or.; Méndez Santiago, 2021, 151-169. or.).

17. Plautoren obretan (As. 85-90; 895-900; *Aul.* 155-170; *Cas.* 190-195; *Men.* 760-775) argi ikusten da K.a. III. mendetik aurrera emakume erromatarrek gero eta aberastasun indibidual handiagoak zituztela, eta horrek hainbat eztabaida ekarri zituen haien botereaz beldur zirenen artean (Treggiari, 1991; Dixon, 2004, 5674. or.). Garaiko emakume gehienek kasuan oso gutxi dakigu aberastasun horren zenbatekoari buruz, baina Terentziaren kasuan kopuruak argiagoak dira. Plutarkok (*Cic.* 8.3-5) diotenaren arabera, 120.000 denarioko dotea eta 90.000 denarioko herentzia jaso zituen. Horiez gain, Zizeronen gutunei esker (*Fam.* 8; *Att.* 394) badakigu hainbat *insulae* zituela bere izenean, eta horiek alokatzen urtero 100.000 denario inguru jasotzen zituela. Gutun horiek, gainera, Tusculum inguruan baso oparo bat (*Att.* 24.5) eta *ager publicuse*ko zenbait lur (*Cic.* *Att.* 35) ere bazituela diote.

18. *Cic. Att.* 12.1; *Cic. Att.* 35.4. Legalki emakume guztiek tutore bat izan behar bazuten ere haien erabaki ekonomikoak bermatzeko, errepublikako azken urteetan arau hori ez betetzeko hainbat trikimailu garatu ziren. Terentziaren kasuan, badirudi tutore moduan bere esklabo ohi bat aukeratu zuela erraz kontrolatu ahal izateko (Dixon, 1984, 343-371. or.; Thomas, 1991, 131202. or.; Morrell, 2020, 89-116. or.; Lizarategui, 2023, 53-70. or.).

19. «Haren emaztea Julia zen, Zesarren etxekoa, eta garaiko emakumeen artean noble eta zuhurrenetakoa. Andre honek hezi zuen Antonio, bere semea, eta senarra hil ostean Kornelio Lentulorekin ezkondu zen. Hau Zizeronen aginduz exekutatu zuten Katilinen konplotean parte hartzearen. Hau izan omen zen Antoniok Zizeronekiko zeukan gorrotoaren jatorria. Antonioren esanetan, ez zieten Lentuloren gorpua bueltatu bere ama Zizeronen emaztearengana erreguka joan zen arte» (Plu. *Ant.* 2.1-3).

gehienek sarearen bi aldeak ezagutzea. Batzuetan, giro politikoak haien alde egingo zuen, eta momentu horretan posizio finkoagoa izango zuten laguntza eske zetozen andreak etxean jasotzeko; haizea aldatzen zenean, aldiz, beraiek eskatu beharko zuten beste *amica* baten laguntza.

Terentzia praktika horien adibidetzat hartzen jarraituz, egoera-aldaketa nabarmena ikus dezakegu. Juliaren balizko eskakizuna K.a. 63an kokatu beharko genuke, eta Korneliarena K.a. 61ean, hots, senarraren botere politikoa nabarmena eta ukaezina zen momentuan, K.a. 63an lortu baitzuen Arpinateak kontsulatua. Kasu horietan bera izan zen laguntza-eskaerak jasotzen zituena, baina, egoera hori guztiz aldatu zen Zizeronen erbesteratzearen ondorioz. Terentziak gogor lan egin zuen senarraren beste lagunekin batera hura Erromara bueltatzeko (Cic. *Fam.* 8; 14.2; Dixon, 1985, 519-534. or.), eta K.a. 58an lortu zuten, baina inoiz ez zuen garai batean izandako boterea berreskuratu. Ondorioz, zenbait urte beranduago (K.a. 47an) Terentziari idatzitako gutunetako batean, Zizeronek dio bere emazteak Volumniari, garaian Marko Antonioren amorantea zenari, mesede bat eskatu behar izan ziola, eta hark, gainera, gogo txarrez bete zuela²⁰:

Volumnia debuit in te officiosior esse quam fuit, et id ipsum quod fecit potuit diligentius facere et cautius²¹ (Cic. *Fam.* 163).

Printzipatuaren garaian emakumeen arteko *amicitia* sare hauek sendo mantendu ziren, eta haien funtzionamenduak antzekoa izaten jarraitu zuen. Hala ere, berrikuntza nagusi bat egon zen errepublikaren amaierako egoerarekin alderatuz gero. Botere politikoa familia boteretsu gutxi batzuen eskuetatik gizon bakar baten eskuetara igaro zen heinean, patronatu-sareek haien izaera aldakorra eta multipolarra galdu zuten (Eck, 2002; Hurlet eta Mineo, 2009). Gero eta nabariagoa zen *princepsa* izango zela, azken finean, mesedeak banandu edo berretsiko zituena, beraz, testuinguru bakoitzean gizon boteretsuena bilatu behar zuten sare zaharrak familia inperialaren inguruan kontzentratzen hasi ziren²². Ondorioz, etxe inperialeko emakumeen sareak bereziki zabalak bilakatu ziren, eta enperadorearen konfiantza zuten artean, piramide sozial horren erpinean mantentzea lortu zuten.

3. Emakumeen parte-hartze politikoaren inguruko gogoetak Antzinateko idazleen testuetan

Amicitia sare horiei esker, emakume erromatar askok hiriko gai politikoetan eragiteko aukera izan zuten. Hala, hasieran aipatu ditugun legeak eta ideal domestikoa kontuan hartuta, iturriek aho batez sare hauen kontra egitea espero

20. Antoniok bere fabore politikoak banatzeko ahalmena amorante baten esku utzi izana detaile garrantzitsua da. Plautoren komedian matronek haien etxean prostitutak jaso ahal zituztela ikusi badugu ere, oso bestelako kontua zen izen oneko andre batentzat *pudicitia*rik ez zeukan emakume baten etxera joatea. Zizeronek antzeko egoera salatu zuen jada Verresen kontra eginiko hitzaldietan, hark ere Kelidon izeneko maitalea baliatu baitzuen etxera zetozenen faboreak entzuteko (Cic. *Verr.* 1.46.120; 1.52.137-53.140).

21. «Volumnia zurekiko prestuagoa izan behar zen, eta egin duena ere ardura eta kontu gehiagorekin egin izan ahal zuen» (Cic. *Fam.* 163).

22. Premierstein-ek (1937, 112-116. or.) enperadorea *patronus* unibertsala bilakatu zela proposatu zuen, baina, honen kontra, Jehne-k (2015, 297-320. or.) dio sare hauetan arbitro-papera hartu zuela.

beharko genuke. *A priori*, erromatarrek emakumeak erabaki politikoetatik guztiz baztertzea bilatzen bazuten, Antzinateko autoreek kasu eredugarri gisa goraiatu beharko lituzkete praktika horietatik kanpo geratzea erabaki zuten emakumeak. Baina guztiz kontrako iritzia irakur dezakegu haien lanetan. Interesgarria da, hain zuzen ere, kritika nagusiak sare horiek huts egin zuten momentuei zuzenduta egon zirela, eta, oro har, huts horiei buruz idatzi zuten autoreen gezi zorrotzenak ez ziren *amicitia* sareen kontra zuzendu, baizik eta haien hutsak sortutako ondorioei.

Kasu horietako bat Tito Liviok K.a. 195ean kokatzen du, *Lex Oppia* delakoaren kontra erromatar emakumeek burututako protesta publikoaren testuinguruan²³. Livioaren arabera, garaiko kontsulak, Katon Zaharrak, gogor kritikatu zituen matronak Senatuaren erabakietan esku hartzen saiatzeagatik, tradizioak eztabaida horietan parte hartzea debekatzen ziela argudiatuz (*Maiores nostri nullam, ne privatam quidem, rem agere feminas sine tutore auctore voluerunt*). Hala ere, haren hitzaldian argi eta garbi antzeman dezakegu kritika nagusia protestaren izaera publikoaren kontra zihoala, eta Katon bera ere prest zegoela influentzia modu pribatuagoak onartzeko. Haren hitzaldiaren atzean kexa nagusi bat dago Erromako kaleetan lege hura bertan behera uzteko eskatzen zebiltzan emakumeen kontra: zergatik protestatu modu horretan eta ez normalean egin ohi zuten moduan?

Equidem non sine rubore quodam paulo ante per medium agmen mulierum in forum perveni. quod nisi me verecundia singularum magis maiestatis et pudoris quam universarum tenuisset, ne compellatae a consule viderentur, dixissem: 'qui hic mos est in publicum procurrendi et obsidendi vias et viros alienos appellandi? istud ipsum suos quaeque domi rogare non potuistis? an blandiores in publico quam in privato et alienis quam vestris estis? quamquam ne domi quidem vos, si sui iuris finibus matronas contineret pudor, quae leges hic rogarentur abrogarenturve curare decuit'. Maiores nostri nullam, ne privatam quidem, rem agere feminas sine tutore auctore voluerunt [...]'²⁴ (Liv. 34.2.8-12).

Katonen galderek emakumeek gai politikoetan eragiteko modu onargarri bat bazegoela adierazten dute; izan ere, kontsulak bizitza publikoan modu konkretu

23. *Lex Oppia* delakoa K.a. 215ean, Bigarren Gerra Punikoaren testuinguruan, onartutako lege suntuari bat izan zen. Azken urteetan eztabaida luzeak egon dira mundu akademikoan horrek erromatar emakumeei bitxiak eta bestelako objektu garestiak izatea, edo bakarrik erabiltzea, debekatzen ote zien argitzeko. Sarah B. Pomeroy-k (1975, 178. or.) legeak emakumeen aberastasuna mugatu nahi zuela proposatu zuen, baina Culham-en ustez (1982, 786-793. or.), aldiz, gerra-garaian egin ziren beste konfiskazioak kontuan hartuta (Liv. 26.35-36 ; 34.6.13-14), emakumeek ezer gutxi izango zuten jada legearen bidez konfiskatu ahal izateko. Gaur egun iritzi hori da mundu akademikoan onartuena: Hopwood, 2001, 121-139. or.; Berg, 2002, 15-73. or.; Zanda, 2011. Hala ere, Hanibalen kontrako gerra K.a. 201ean amaitu zen, eta neurriak bere horretan jarraitu zuen matronek (eta haien aldeko hiritarrek) horren kontra protestatu zuten arte. Baliteke beraz, gerra neurri bat bezala onartu baldin bazen ere, gero emakume batzuen aberastasuna mugatzeko baliatu izana (Lizarzategui, 2022, 159-178. or.).

24. «Egia esan, duela gutxi forora iristeko emakume talde baten artetik pasa behar izan naizenean gorritu egin naiz. Bakoitzaren izen onak eta ahalkeak (eta ez horrenbeste talde osoarenak) lotsa sorraz egin ez balidate —kontsula haiei publikoki errieta egiten agertzeak lotsatzen baininduen—, honela esango niekeen: "Zein jarrera mota da hau, kontu publikoetan arduratzea, kaleak okupatzea eta inoren senarrei dei eginez jardutea? Ezin zenieten hori berori etxean senarrei eskatu? Xarmantagoak al zarete plazan etxean baino, eta kanpokoekin etxekeekin baino? Nolanahi ere, ahalkeak matronak haiei dagozkien eskubideetan mantenduko balitu, etxean ere ez lirateke arduratu behar hemen onartu edo ezesten diren legeei buruz. Gure arbasoek ez zuten nahi izan emakumeak inolako kontuetan tutore gabe jardutea, ezta kontu pribatuak izanda ere [...]» (Liv. 34.2.8-12).

batean eta ez bestean parte hartzen saiatzeagatik kritikatzeko dituzte gehienbat. Haren ardura nagusiak bi dira: emakume hauek fabore politikoak haien familiakoei eskatu ordez etxetik kanpokoei eskatzea, eta gainera exijentzia horiek hiriko espazio publikoan egitea (*in publico quam in privato et alienis quam uestris*). Katonen diskurtso honek erromatar emakumeen izen onarentzat etxetik kanpoko gizonei faboreak eskatzea arriskutsua izan ahal zela konfirmatzen du. Baina pribatutasunaren kontuaz gain, protestan erabilitako tonuaren inguruko gogoeta ere ageri da Livioaren testuan. Katonek emakumeen protesta publikoa erabaki politiko bat inposatzeko saiakera moduan irakurtzen du, eta bere hitzaldian gizonen kontrako genozidio baten erreferentzia mitologikoa gehitzen du emakumeen inposaketa onartzeak sorraraziko zituen balizko ondorioen inguruan beldurra sorrarazteko²⁵. Hitz hauen atzean K.a. 195ean protestatuko zuten emakumeen kontrako kritika konkretu bat aurki dezakegu; izan ere, aurreko ereduaren ikusi dugunez, emakumeek sare pribatuak baliatzean pertsuasioa eta erregua erabiltzen zuten haien senideen laguntza lortzeko. Katonek kontu politikoetan eragiteko erregu-tonu hori albo batera utzi eta publikoki presioa egiten saiatu izana leporatzen die (*domi rogare non potuistis*). Baina esaldi horrek, teorikoki soilik gizonei zegokien gobernu arlotik kanpo geratzeko agindu ordez, parte hartzeko modu egokiago bat zeukatela leporatzen die. Livioaren testu honek, emakumeak politikatik baztertuta bizi behar zirela esaten badu ere, honi egiten dizkion ñabardurak kontuan hartuz badirudi andre erromatarrek gobernu-erabakietan zilegitasun osoz eragiteko gaitasuna bazeukatela onartzen duela, betiere hori harreman pribatuaren eta pertsuasioaren bidez lortzen bazuten.

Antzeko jarrera bat aurkitzen dugu Valerio Maximoren lanean ere. Autore honek kapitulu bat eskaintzen die jendaurrean hitz egitera ausartu ziren emakumeei (V.M. 8.3), eta baliteke giltzarria izatea emakume erromatarrek haien hiriko erabaki politikoetatik kanpo uzten zituzten mugak zein malguak ziren ulertzeko. Izan ere, Valerio Maximok, Livio Katonen hitzaldian egin zuen bezala, emakumeek jendaurrean hitz egitea ohituraren kontra zihoala esaten du (*Ne de iis quidem feminis tacendum est quas condicio naturae et verecundia stolae ut in foro et iudiciis tacerent cohibere non valuit*), baina, berriro, testuari sakon begiratzean autoreak emakumeek politikan eragiteko modu batzuk onartzen dituzten zituela ikusten dugu. Are gehiago, haren ustez, egoera zehatz batzuetan haien esku-hartze publikoa ere onargarria izan ahal zen. Judith Hallett-ek (1989, 59-78. or.) aipatzen duen moduan, interesgarria da K.o. I. mendeko autore honek aurkeztzen dituen hiru kasuak modu kontrajarrian ebaluatzen dituela, nahiz eta, printzipioz, hirurek (Afrania, Mesia eta Hortentsiak) arau berbera apurtu zuten.

Egileak Afraniari giza izaera ukatzen dio txakur batekin alderatuz, eta bere heriotza ospatzen du hiritarrentzat gordeta egon behar luketen betebeharrak publikoak

25. Katonek Lemnoseko irlako emakumeen kondairari egiten dio erreferentzia. Jason eta Argonauten kondairarekin lotutako pasarte horretan irla greko hartako emakumeek Afrodita jainkosaren gurtza gaizki praktikatzearren jainkosaren zigorra jaso zutela kontatzen da. Amodioaren jainkosak haien senarrentzat gorrotagarriak egin zituen emakume hauek eta gerran harrapatutako esklabuekin harremanak ezartzera bultzatu zituen. Horren aurrean haserre, irlako emakumeek gizon guztiak erail zituzten. Bat bakarrik libratu zen, bere alabak ihes egiten lagundu ziolako. Kondaira honi lotutako gertakariei buruz Antzinateko autore askok idatzi zuten: A.R. 1, 600-910; Hyg. *Fab.* 15; 74; Ov. *H.* 6; Stat. *Th.* 5; Val.-Flac. 2, 72-427; Lact. *Plac.* 4, 717; 5, 613-675.

bere esku hartzeagatik. Aldiz, Valerio Maximok Mesiak, eta bereziki Hortentsiak, burututako hitzaldiak deskribatzean tonu laudagarria baliatzen du. Autorearen arabera Mesiak bere herrikide guztiak txunditu zituen tribunalaren aurrean bere burua zorrotz eta sendo (*defensionis non solum diligenter sed etiam fortiter exsecuta*) defendatu zuelako. Era berean, Hortentsiak bere aitaren mintzamenerako gaitasun aparta zeukala gogorarazten du, eta haren familiako gizonek emakume horren pausoei jarraitu bazieten zorte galanta izango zutela ere adierazten du.

Kasu hauek konparatuta, badirudi balorazio ezberdina haien esku-hartze publikoaren maiztasunean oinarritzen zela. Afraniaren kasuan, Valerio Maximok dio haren esku-hartze publikoak maiz izan zirela, eta gainera ez beharrak baizik eta harrotasunak bultzatuta, kasu guztietan haren alde hitz egin ahal zuten senideak eskuragarri baitzituen (*pro se semper apud praetorem verba fecit, non quod advocatis deficiebatur, sed quod impudentia abundabat*). Beste bi kasuetan, aldiz, esku-hartze publikoa guztiz isolatua den ekintza gisa aurkezten da: Mesiari buruz egun bakar baten ondoren absolbitu zutela dio (*prima actione et paene cunctis sententiis liberata est*) eta Hortentsiaren kasuan, beharrianak eragindako ekintza publiko bakarra izan zela berea (*una feminae actione*) aipatzen du, inork ez baitzituen aldeztu matrona erromatarrek triunbiroek zerga berri bat inposatu nahi izan zietenean²⁶ (*cum ordo matronarum gravi tributeo triumviris esset oneratus nec quisquam virorum patrocinium eis accommodare auderet*). Ñabardura hori kontuan hartuta, badirudi Valerio Maximorentzat emakume erromatarrek politikan eragitea (bereziki harreman pribatuen bidez baldin bazen) ez zela kontuan hartzeko moduko arazo bat. Are gehiago, konparazio hau buruan, andreentzat arrazoizkoa izan zitekeen haien eskaerak publikoki egitea ere beste aukerek kale egin zuten egoera puntual eta desesperatuetan.

Hala, bai Liviok eta baita Valerio Maximok ere emakumeak, tradizioari jarraituz, erromatar gobernuan parte hartzetik baztertuta zeudela aipatzen dute, baina, testuan sakondu ahala, biek onartzen dute kontu hauetan matronek zeukaten eragina ohiko *amicitia* sareen bidez zilegizkoa zela. Interesgarria da, gainera, bi gogoetak sare horiek funtzionatu ez zuten momentu baten sortu izana, eta bi autoreen kasuan haien erabilera gomendatzen amaitu izana. Zentzu horretan, bi iturriek frogatzen dute erromatarrek bazutela emakume-sare hauen existentziaren berri, haien funtzionamenduak gizartean sor zitzakeen itxurazko kontraesanak ulertzen zituztela eta, hala ere, horien kontrako jazarpenak ezarri orde, sistemaren beharrezko atal moduan onartzen zituztela. Hortentsiaren kasuarekin jarraituz, Apianok bere diskurtsoa osorik transmititu zuen²⁷, eta han argi ikusten da matronen

26. K.a. 42an, triunbiroak Zesarren hiltzaileen kontrako gerra prestatzen zeudela, eta arerioen kontrako jazarpen poliko eta ekonomikoa nabarmena zen momentu baten, Marko Antonio, Lepido eta Oktaviok Erromako 1.400 emakume aberatsenei zerga berri bat inposatu zieten. Ziur aski horren helburua bikoitza zen: alde batetik, gerrarako dirua batzea, eta bestetik, emakume horietako askok erbestean zituzten familiakoak mantentzen zituztenez haien diruarekin, triunbiroek haien baliabideak murriztu nahi izango zituzten etsai politikoak are gehiago ahultzeko.

27. Bronwyn Hopwood-ek (2015, 315-317. or.) paralelismo interesgarriak ikusten ditu Tito Liviok (34.5.3-13) Katoni erantzun zion senatariari atxikitzen dion hitzaldian eta Apianok transmititutako Hortentsiaren hitzaldian, ziur aski biak, garai ezberdinetan, emakume beraren hitzaldi publikoan oinarritu zirelako.

sare hauen erabilera guztiz integratuta zegoela erromatar politikan. Izan ere, askoz kritikagarriagoa da, Apianoren ustez, sare horien bidez protestatzeko aukera ukatu zien emakumearen jarrera, forora hitz egitera joan zirenena baino:

Αἱ δὲ γυναῖκες ἔκριναν τῶν προσηκουσῶν τοῖς ἄρχουσι γυναικῶν δεηθῆναι. Τῆς μὲν δὴ Καίσαρος ἀδελφῆς οὐκ ἀπετύγχανον, οὐδὲ τῆς μητρὸς Ἀντωνίου· Φουλβίας δέ, τῆς γυναικὸς Ἀντωνίου, τῶν θυρῶν ἀπωθούμεναι χαλεπῶς τὴν ὕβριν ἤνεγκαν, καὶ ἐς τὴν ἀγορὰν ἐπὶ τὸ βῆμα τῶν ἀρχόντων ὡσάμεναι, δισταμένων τοῦ τε δήμου καὶ τῶν δορυφόρων, ἔλεγον, Ὅρτησίᾳ ἐς τοῦτο προκεχειρισμένης· Ὁ μὲν ἤρμοζε δεομένης ὑμῶν γυναιξὶ τοιαῖσδε, ἐπὶ τὰς γυναῖκας ὑμῶν κατεφύγομεν· ὃ δὲ οὐχ ἤρμοζεν, ὑπὸ Φουλβίας παθοῦσαι, ἐς τὴν ἀγορὰν συνεώσμεθα ὑπ' αὐτῆς. [...]»²⁸ (App. BC. 4.32-33).

Hemen lehen aipatu ditugun *amicitia* sareen antolamenduari buruzko ezaugarriak ikusten ditugu, hala nola eskatzaileek bitartekari-lanak egin beharko dituzten matronak haien senideen boterearen arabera aukeratzen dituzte, eta erabaki politiko bat bilera pribatuen bidez konpontzen dute, emakume horien etxeetara joanda. Horren ostean, andreen arteko harremanek porrot egitean zer gerta zitekeen irudikatzen du testuak. Printzipioz, harrigarria izan beharko luke bere senarraren erabaki politikoetan sartzeari uko egin zion emakume bakarra izatea iturriek kritikatzan dutena. Fulvia izan zen egoera honetan erromatar matronei teorikoki eskatzen zitzaizen paper domestikoa, kontu politikoetatik guztiz isolatuta, bete zuen bakarra²⁹. Baina bai Valerio Maximo eta baita Apiano ere³⁰ Hortentsia eta beste emakumeen alde kokatzen dira, eta haiek publikoki hitz egin behar izanaren errua Fulviari botatzen diote, hain zuzen ere, ez zuelako berarengandik espero zena bete. Horrenbestez, badirudi goi-mailako familietako emakume ororen betebeharren parte zela beste emakume batzuek aurkezten zizkieten eskakizunak entzun eta, ahal zen heinean, senideak haiei laguntzeko konbentzitzea. Betebehar hau, eta berak zituen inplikazio politikoak, *domum servavit* delako idealak eskatzen zituen zereginekin kontrajarrita bazeuden ere, ikusi ditugun testuek adierazten digute sistema politiko

28. «Emakumeek triunbioren familiako andreei erreguka joatea erabaki zuten. Zesarren arrebarekin arrakasta izan zuten, eta baita Antonioren amarekin ere. Baina Fulviak, Antonioren emazteak, etxeko atetik bota zituenean, haren harrokeria onartu ezinik, Forora jo zuten triunbioren aurrera. Herriak eta zaindariak pasatzen utzi zieten eta Hortentsia hautatu zuten haien izenean hitz egiteko: “Gure mailako emakumeentzat aproposa denari jarraituz, lehenik zuten emakumeengana joan gara arrenka, baina ez da zilegi Fulviak tratatu gaituen modua, eta hortaz ezinbestean forora etorri beharra izan dugu. [...]» (App. BC. 4.32-33).

29. Fulvia Marko Antonioren emaztea zen Julio Zesar hil zen garaian eta Oktavioren kontra izan zituen lehen gatazketan zehar. Bera hil ostean, eta Kleopatra erreginarekin harremanak sendotu baino lehen, Marko Antonio Oktaviarekin ezkondu zen, bere arerioaren arrebarekin, denboraldi batez behintzat bakea ziurtatzeko haien artean. Hala, kontuan hartu behar dugu, K.a. 31n Aktiumeko guduan Antonio eta Kleopatra garaitu zituen momentutik aurrera, Oktavio Erromako gizon boteretsuena bilakatu zela eta Printzipatuari hasiera eman ziola. Beraz, kontserbatzen ditugun iturri gehienak jada enperadoreen garaian, hots, Oktavioren ondorengoen garaian, idatzi zirenez, Fulvia (eta baita Kleopatra ere) sarri konparatzen dira Oktaviarekin, Antoniok erabaki txarrak hartzen zituela adierazteko. Beraz, derrigorrezkoa dugu onartzea ezer gutxi dakigula Fulviari buruz. Ez dakigu iturriek zenbateraino esajeratzen dituzten hari leporatzen dizkieten gaiztakeriak, baina, nolanahi ere, matrona honi buruz hitz egitean argi eta garbi uzten dute zeintzuk ziren influentzia handiko emakume batek erromatarrengan sorrarazten zituen beldurrak. Fulviari buruz: Gafforini, 1994, 109-134. or.; Welch, 1995, 182-201. or.; Rohr Vio, 2013; Hallett, 2015, 247-265. or.; Keegan, 2020, 103-122. or.

30 Kintilianok (Quint. *Inst. Orat.* 1.1.6) ere Hortentsia goraipatu zuen.

erromatarrean garrantzitsuagoa zela emakumeek haien kexu eta eskakizunak modu pribatuan aurkezteko aukera ziurtatzea ekintza politikoetatik guztiz baztertzea baino.

4. Ondorioak

Testu hauei esker ondoriozta dezakegu emakume erromatarrek *amicitia* sareak sarri erabiltzen zituztela euren helburuak, eta haien familienak, lortzeko. Baina emakumeen arteko patronatu-harreman hauen funtzionamendua gizonen arteko sareekiko pixka bat ezberdina zen. Izan ere, kontu politikoei zegokienez, bederen, emakumeek zuzenean faboreak banatu ordeztu bitartekari-zerbitzua eskaintzen zuten haien senideak konbentzitzeko. Bestalde, bai hierarkizazioari eta baita etxeko espazioen erabilerari zegokienez ere, gizon zein emakumeen arteko sareak nahiko antzekoak ziren. Era berean, nabarmengarria da legeak Erromatar Errepublikako sistema politiko ofizialetik baztertzen bazituen ere, emakumeek komunitatearen erabaki politikoetan parte hartzeko baliatzen zituztela *amicitia* sare hauek. Hala, botere politiko ofizialik ez zeukaten arren, sare hauen bidez hiriko gorabeheretan eragiteko gizarte osoak ezagutu eta onartzen zuen ohiko modu bat zeukaten.

Ikusi dugunez, sare hauek huts egin eta emakumeek haien eskaerak publikoki aurkeztu behar izan zituztenean sortu ziren soilik egoera kontrajarri honekiko hausnarketak. Ordura arte, Livio moduko autoreek emakumeen arteko *amicitia* sareak Erromako lege-kode zaharrenak baino askoz lehenago sortu omen zirela aipatzen dute, praktika hau hiriko ohitura zaharrenetan errotuz. Honi buruz, Livio, Valerio Maximo eta Apianoren ondorioak antzekoak dira: teorikoki matronek politikan inolako parte hartzerik ez izatea espero bazen ere, inork ez zuen haien jarduna kritikatzeko ekintza horiek pribatuan burutzen bazituzten. Are gehiago, egoera askotan (barne-gatazken garaian bereziki) sare hauek baliatuz burutzen zituzten ekintzak laudagarriak ziren eta, zenbait kasutan, parte-hartze publikoa ere onargarria eta ulergarria izan ahal zen ohiko *amicitia* sareak erabiltzerik ez bazeukaten. Ondorioz, badirudi erromatar emakumeak ideal domestiko bati lotuta zeuden arren, horrek ez zituela oztopatzen hiriko erabaki politikoetan eragiteko.

5. Bibliografia

Iturri klasikoak edizioak

- Apiano. McGing, B. (argtz. itzle.) (2020). *Appian. Roman History, Volume IV. Civil Wars (Books 1-2)*. Loeb Classical Library.
- Plauto. de Melo, W. (argtz. itzle.) (2011). *Plautus. Casina - The Casket Comedy - Curculio - Epidicus - The Two Menaechmuses*. Loeb Classical Library.
- Plutarko. Perrin, B. (itzle.) (1920). *Plutarch. Lives: Demetrius and Antony. Pyrrhus and Gaius Marius*. Loeb Classical Library.
- Tito Livio. Foster, B.O. (itzle.) (1919). *Livy. History of Rome, Volume I. (Books 1-2)*. Loeb Classical Library.
- Tito Livio. Yardley, J.C. (argtz. itzle.) (2017). *Livy. History of Rome, Volume IX. (Books 31-34)*. Loeb Classical Library.
- Valerio Maximo. Shackleton Bailey, D.R. (argtz. itzle.) (2000). *Valerius Maximus. Memorable Doings and Sayings, Volume I. (Books 1-5)*. Loeb Classical Library.

Zizeron. Shackleton Bailey, D.R. (argtz. itzle.) (2001). *Cicero. Letters to Friends, Volume I*. Loeb Classical Library.

Egungo bibliografia

- Badian, E. (1958). *Foreign Clientelae (26470 B.C.)*. Clarendon Press.
- Berg, R. (2002). Wearing Wealth. Mundus muliebris and Ornatus as Status Markers for Women in Imperial Rome. In Ria Berg, Riikka Hälikkää, Minerva Keltanen, Janne Pölönen eta Ville Vuolanto (argtz.), *Women, Wealth and Power in the Roman Empire* (15-73. or.). Institutum Romanum Finlandiae.
- Buonopane, A. (2016). Terenzia, una matrona in domo et in re publica agens. In Francesca Cenerini eta Francesca Rohr Vio (argtz.), *Matronae in domo et in re publica agentes: Spazi e occasioni dell'azione femminile nel mondo romano tra tarda repubblica e primo impero. Atti del Convegno di Venezia 16-17 ottobre 2014* (51-64. or.). Edizioni Università di Trieste.
- Carandini, A. (2014). *Le case del potere nell'antica Roma*. Laterza.
- Chatelard, A. (2016). Minorité juridique et citoyenneté des femmes dans la Rome républicaine. *Clio*, (43), 23-46.
- Clarke, J.R. (1991). *The houses of Roman Italy, 100 BC – AD 250. Ritual, space, and decoration*. University of California Press.
- Culham, P. (1982). The *Lex Oppia*. *Latomus*, (41), 786-793.
- Dixon, S. (1984). *Infirmitas sexus*: Womanly weakness in Roman Law. *Revue d'histoire du droit*, (52), 343-371.
- Dixon, S. (1985). Breaking the Law to do the Right Thing: The Gradual Erosion of the Voconian Law in Ancient Rome. *Adelaide Law Review*, (9), 519-534.
- Dixon, S. (2004). Exemplary housewife or luxurious slut? Cultural representations of women in the Roman economy. In Eireann Marshall, Fiona McHardy (argtz.), *Women's Influence on Classical Civilization* (5674. or.). Routledge.
- Eck, W. (2002). *The Age of Augustus*. Wiley-Blackwell.
- Foubert, L. (2016). Crowded and emptied houses as status markers of aristocratic women in Rome: the literary commonplace of the domus frequentata. *EuGeStA*, (6), 129-150.
- Gafforini, C. (1994). Le mogli romane di Antonio: Fulvia e Ottavia. *Rendiconti Istituto Lombardo*, (128), 109-134.
- Gardner, J. (1986). *Women in Roman Law and Society*. Routledge.
- Hallett, J.P. (1989). Women as *Same* and *Other* in Classical Roman Elite. *Helios*, (16), 59-78.
- Hallett, J.P. (2015). Fulvia: The Representation of an Elite Roman Woman Warrior. In Jacqueline FabreSerris, Alison Keith (argtz.), *Women and War in Antiquity* (247-265. or.). Johns Hopkins University Press.
- Hemelrijk, E.A. (2015). *Hidden Lives, Public Personae. Women and Civic Life in the Roman West*. Oxford University Press.
- Hopwood, B. (2001). Livy and the Repeal of the *Lex Oppia*. *Stele*, (5), 121-139.
- Hopwood, B. (2015). Hortensia speaks: an authentic voice of resistance? In Kathryn Welch (argtz.), *Appian's Roman History. Empire and Civil War*, (305-322. or.). Classical Press of Wales.
- Hurlet, F. eta Mineo, B. (argtz.) (2009). *Le Principat d'Auguste. Réalités et représentations du pouvoir. Autour de la Res Publica Restituta*. Presses universitaires de Rennes.
- Ibáñez Chacón, A. (2006-2007). Salustio y Sempronia: una mujer y política en la antigua Roma. *Cudas*, (7-8), 67-89.
- Jehne, M. (2015). From *Patronus* to *Pater*: The Changing Role of Patronage in the Period of Transition from Pompey to Augustus. In Martin Jehne eta Francisco Pina Polo

- (argtz.), *Foreign clientelae in the Roman Empire: a reconsideration* (297-320. or.). Franz Steiner Verlag.
- Kaster, R.A. (1997). The Shame of the Romans. *Transactions of the American Philological Association*, (127), 1-19.
- Keegan, P. (2020). Colon(ial)izing Fulvia: (re)presenting the military woman in history, fiction, and art. In Filippo Carlà-Uhink eta Anja Wieber, *Orientalism and the reception of powerful women from the ancient world* (103-122. or.). Bloomsbury Academic.
- Lizarzategui Elu, L. (2022). La controverse sur l'inclusion des femmes dans le système fiscal romain pendant la république (195 av. n. è. – 39 av. n. è.). *Studia Historica. Historia Antigua*, (40), 159-178.
- Lizarzategui Elu, L. (2023). Ad Tabulam Valeriam ducta esses. Las causas tras el ataque a Terencia. *Grecorromana. Revista Chilena de Estudios Clásicos*, (5), 53-70.
- McCoy, M. (2006). The politics of prostitution: Clodia, Cicero and social order in the late Roman Republic. In Christopher A. Faraone eta Laura K. McClure (argtz.), *Prostitutes and Courtesans in the Ancient World* (177-185. or.). The University of Wisconsin Press.
- Méndez Santiago, B. (2021). Un matrimonio *sine manu*. La participación de Terencia en las finanzas y en la cohesión familiar. In Rosa María Cid López, Almudena Domínguez Arranz eta Rosa María Marina Sáez (argtz.), *Madres y familias en la Antigüedad. Patronos femeninos en la transmisión de emociones y patrimonio* (151-169. or.). Trea.
- Morrell, K. (2020). *Tutela mulierum* and the Augustan marriage laws. *EuGeStA*, (10), 89116.
- Pavón Torrejón, P. (2018). *Feminae ab omnibus officiis civilibus ver publicis remotae sunt* (D. 50.17.2, Ulp. 1 Sab.): Ulpiano y la tradición a propósito de las mujeres. In Pilar Pavón Torrejón (argtz.), *Marginación y mujer en el Imperio Romano* (33-62. or.). Quasar.
- Pomeroy, S. B. (1975). *Goddesses, Whores, Wives, and Slaves. Women in Classical Antiquity*. Schocken Books.
- Posadas Sánchez, J.-L. (2008). Clientelas y amistades femeninas en Plinio el Joven. *Studia Historica. Historia Antigua*, (26), 87-105.
- Premenstein, A. (1937). *Vom Werden und Wesen des Prinzipats. Aus dem Nachlass herausgegeben von Hans Vollmann*. Bayerischen Akademie der Wissenschaften.
- Rohr Vio, F.(2013). *Fulvia. Una matrona tra i signori della guerra*. EdiSES.
- Saller, R. (1982). *Personal Patronage under the Early Empire*, Cambridge University Press.
- Saller, R. (1989). Patronage and friendship in early Imperial Rome: drawing the distinction. In Andrew Wallace-Hadrill (argtz.), *Patronage in Ancient Society* (4962. or.). Routledge.
- Sherwin-White, A.N. (1969). Pliny, the man and his letters. *Greece & Rome*, (16), 76-90.
- Skinner, M.B. (2011). *Clodia Metelli. The Tribune's Sister*. Oxford University Press.
- Thomas, J.-F. (2005), Pudicitia, impudicitia, impudentia dans leurs relation avec pudor: étude sémantique. *Revista de Estudios Latinos*, (5), 53-73.
- Thomas, Y. (1991). La division des sexes en droit romain. In Pauline Schmitt-Pantel (zuz.), *Histoire des femmes en Occident. I. L'Antiquité* (131202. or.). Académique Perrin Editions.
- Treggiari, S. (1991). *Roman Marriage: lusti Coniuges from the Time of Cicero to the Time of Ulpian*. Clarendon Press.
- Treggiari, S. (2007). *Terentia, Tullia and Publilia. The Women of Cicero's Family*. Routledge.
- Weiden Boyd, B. (1987). *Virtus Effeminata* and Sallust's Sempronia. *Transactions of the American Philological Association*, (117), 183-201.

- Welch, K.E. (1995). Antony, Fulvia, and the Ghost of Clodius in 47 BC. *Greece & Rome*, (42.2), 182-201.
- Williams, C.A. (2013), *Reading Roman Friendship*, Cambridge University Press.
- Zanda, Emanuela (2011). *Fighting Hydra-like Luxury. Sumptuary Regulation in the Roman Republic*. Bloomsbury Academic.